

**2021EKO MARTXOREN 30EAN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga

EZ BERTARATUAK

Zinegotziak

Mikel Gotzon Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oriá
Jose Ramón Eperde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko martxoaren 30ean arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkate Dekretuaren bidez Plenoko aretoaren neurriak ikusirik neurri berezi batzuk hartu direla:

1.- Bileran zinegotzi hauek parte hartuko dute zuzenean: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Gainontzeko zinegotziek, bere taldeko bozeramailearen gain utziko dute bere boto delegatua. Bozeramaile bakoitzak delegazio kopuruaren araberako botoak izango ditu.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oriá, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-María Cristina Santos San Sebastian, Jose Ramón Eperde Irizar eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurrutxaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 4 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTA ONARTZEA:

*** 2021/02/23KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2021eko otsailaren 23ko ohiko bilkurako akta onartutzat jotzen dute, baina Ana Jesus Leunda zinegotziak azalpen batzuk eskatu ditu Trinketeko kuota itzulera dekretuan, zergadunen izen abizenak oso osorik idatzita daudelako.

Idazkariak hartu du hitza eta adierazi du, gardentasun legearen baitan eta zergaren itzulera justifikatzeko datu horiek argitaratu behar ditugula eta errolda fiskalak publikoak direla.

Halere, Datuen Babesaren inguruko kontsulta zehatzagoa egingo duela eta datorren Udalbatzarrera zalantza argituta eramango duela.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021/29 DEKRETUTIK 2021/60 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkatetzak 2021eko otsailaren 22tik martxoaren 24ra bitartean (2021/29-2021/60) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 42/2021 ETA 44/2021 ALKATE DEKRETUAK BERRESTEA: “XIBARIT ARGITALETXEARI EMANDAKO DIRULAGUNTZA”.

Gorka alkateak azalpenak eman ditu kultura batzordean adostutako dirulaguntza honen inguruan, liburu baten argitarapenari buruzko dirulaguntza da, Irurako udalerriko irudiak azaltzen direlako eta kulturari laguntzeko espiritua duelako.

“21-03-02ko 42/2021 DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO Jn.k, Irurako Udaleko Alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

IKUSIRIK

Xibarit argitaletzeko Joseba Urretabizkaia jaunak “Hugo eta harri esferikoa” ipuinaren proiektua alkateari eta kultura teknikariari aurkeztu ziela, adieraziz, bertako irudi gehienak Irurako paisaietan oinarrituak zeudela, eta ondorioz, Irurarentzat ere liburu argitaratzea interesgarria izan zitekeela, udal honi liburu argitaratu ahal izateko, 1.500 €-ko dirulaguntza eskatu nahi ziola.

Eskaera hau udaleko kultura batzordeak aztertu zuen 2020ko abenduaren 15ean eginiko bileran eta adostu zuen:

1. Alkatetzari proposatzea, Xibarit argitaletxeari, 1.500€ko dirulaguntza ematea.
2. Gastu hori udalaren 2020ko gastuen aurrekontu orokorreko 1.000.481.334.00.00.2020 partidari egozte, hain zuzen ere kultur mahaiaren proposamenez kultur ekitaldietarako erabiltzen den partidatik.
3. Proposamen honen berri udalbatzari jakinarazi beharko zaio onartua izan dadin, datorren Osoko Bilkuran.

Araudi aplikagarria eta eskumenak:

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak xedatzen dute, tokiko udalen dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, dirulaguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo dirulaguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko baten bidez.
2. Irurako Udalaren diru laguntzak arautzeko ordenantza (GAO 2012-03-27).

Hori horrela, dekretu honen bidez

ERABAKI DUT

LEHENENGO.- 1.500 euroko dirulaguntza onartzea, Xibarit argitaletxeari, Irurako paisaietan oinarritutako marrazkiz osatua dagoen “Hugo eta harri esferikoa” liburua argitaratzeko.

BIGARREN.- Gastu hori udalaren 2020ko gastuen aurrekontu orokorreko 1.000.481.334.00.00.2020 partidari egoztea.

HIRUGARREN.- Interesatuari eta Kontu-hartzaitzara jakinarazi.”

“21-03-04ko 44/2021 DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO Jn.k, Irurako Udaleko Alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

IKUSIRIK

Xibarit argitaletxeko Joseba Urretabizkaia jaunak “Hugo eta harri esferikoa” ipuinaren proiektua alkateari eta kultura teknikariari aurkeztu ziela, adieraziz, bertako irudi gehienak Irurako paisaietan oinarrituak zeudela, eta ondorioz, Irurarentzat ere liburua argitaratzea interesgarria izan zitekeela, udal honi liburua argitaratu ahal izateko, 1.500 €-ko dirulaguntza eskatu nahi ziola.

Eskaera hau udaleko kultura batzordeak aztertu zuen 2020ko abenduaren 15ean eginiko bileran eta adostu zuela.

Gastu hori udalaren 2020ko gastuen aurrekontu orokorreko 1.000.481.334.00.00 (2020) partidari egotzi zaiola.

Aurkezturiko dokumentazioan 1.560 €ko kantitatea justifikatu duela eta udalaren asmoa gastuaren osotasuna laguntzea dela.

Araudi aplikagarria eta eskumenak:

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Legeak eta garapen erregelamendua

onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak xedatzen dute, tokiko udalen dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, dirulaguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo dirulaguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko baten bidez.

2. Irurako Udalaren diru laguntzak arautzeko ordenantza (GAO 2012-03-27).

Hori horrela, dekretu honen bidez

ERABAKI DUT

LEHENENGO.- 60 euroko dirulaguntza gehigarria onartzea, Xibarit argitaletxeari, Irurako paisaietan oinarritutako marrazkiz osatua dagoen “Hugo eta harri esferikoa” liburua argitaralpena osoki diruz laguntzeko.

BIGARREN.- Gastu hori udalaren 2020ko gastuen aurrekontu orokorreko 1.000.481.334.00.00.2020 partidari egozte.

HIRUGARREN.- Interesatuari eta Kontu-hartzaitzara jakinarazi.”

Batzarkideek, dekretua aho batez onartu dute.

4.- EHNE ETA ENBA NEKAZAL SINDIKATUEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “MENDIKO ABELTZAINZA ETA OTSOAREN POPULAZIOAREN KONTROLAREN ALDEKO MOZIOA”.

EHNE eta ENBA nekazal sindikatuek honako mozio hau aurkeztu dute eta, Gorka Alkateak irakurri du:

Mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa

2020ko otsailaren 5ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak Otsoa espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan interes bereziko kategorian sartzeko tramitazioaren hasera onartzea erabaki zuen, Naturzaintza–Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen gehiengoa aurka bozkatu arren.

2021eko otsailaren 4an Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzako Natura Ondarearen batzordeak, otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzea erabaki zuen, otsoaren populazioaren %95a baino gehiago ordezkatzan duten elkargo autonomoen ordezkariak aurka bozkatu arren.

Aurrez aipatutako Batzordearen diktamena ez loteslea bada ere, Ministeritzako arduradun nagusien hitzetan, batzordeak hartutako norabideari eutsi egingo diote azken muturreraino.

Erabakia behin betikoz hartuko balitz Euskadiko abeltzaintza estentsiboarengan ondorioak larririk eta berehalakoak lirateke, otsoen populazioa areagotuko litzakeelako gure mugakide diren

elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotuko genuke, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure mendiko abeltzaintza es-
tentsiborako bai ardi latxa, babestu nahi diren mendiko larretokiak eta Idiazabal gaztarentzat.

Une honetan, azienda (ardiak, behiak, behorrak, pottokak, ...) mendian kudeatzen dugun abel-
tzainok, kezkatuta eta beldurtuta gaude otsoaren zabalkundearen aurrean orain arte bizitu du-
gun maneju estentsiboaren amaiera suposa dezakeelako eta honenbestez, erabakiaren azken
helburua hori ez bada ere, abeltzaintza estentsiboarekin amaitu eta erabateko maneju intentsi-
bora joan beharko dugulako.

Honenbestez, abeltzainok , IRURAKo udalari honako hau eskatzen dio:

1- Irurako Udalak bere konpromezu tinkoa agertu nahi du mendiko abeltzaintzarekin eta gure
mendiak larretzen dituzten ardiak, ahuntzak, behiak eta zaldiekin. Aziendaren maneju estentsi-
boak, kalitatezko eta elikagai osasuntsuen ekoizpenarekin batera, ingurunearen zaintza eta
kudeaketarako tresna baliagarrienetarikoa delako eta honenbestez, mendiko abeltzaintzarako
mehatxua den otsoaren populazioa kontrolatuko dituen neurriak eta araudiak eskatzen ditu.

2- Irurako Udalak helaraziko dio Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeri-
tzari, mendiko abeltzaintzaren aldeko apustua egiten duela eta honenbestez, otsoaren babes
areagotzeko erabakiaren aurka eta otsoaren populazioa kudeatu ahal izateko baliabide guztiak
har ditzala kontuan, besteak beste, ehiza.

**3- Udalak helaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta
Ingurumen sailari** ez dezala otsoa babes bereziko espezieen katalogoan sartu eta honekin
otso populazioei sarrera eta egonkortzea erraztu. Ez dezan kolokan jarri abeltzaintza estentsi-
boa. Gurea bezalako lurralde txikian, mendiko abeltzaintza elkarbizi ezinezko praktika da eta
otso populazioekin.

Eztabaida garaian Gorka alkateak adierazi du, Eh Bildu taldea abstenitu egingo dela
bozka emateko garaian, ez dutela eztabaidagune egokitzen jotzen, Eusko Jaurlaritzan
erabaki beharko litzatekeela gaia.

Halaber, gaineratu du, erabakia hartzeko eragile ezberdinek partehartu beharko luke-
tela, izan abeltzainak, ingurumen taldeak eta abar.

Erabakietan adostasuna bilatu behar dela eta ez dutela aldebakarrekoak zertan izan
behar, eta bukatzeko, gaiaren zailtasunari erreparatu dio.

Ana Jesus zinegotziak alde bozkatuko dutela adierazi du.

BOZKETAK:

Aldekoak: 4 aldeko boto, EAJko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurrutxaga,
Jose Ramón Eperde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo
Iturralde.

Kontra: ez da kontrako botorik egon.

Abstentzioak: 5, bost boto Eh Bilduko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Noelia
Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra, Leticia Aristi Ori.

Mozioa onartua izan da.

**Erabaki hau, Udalak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta In-
gurumen sailari helaraziko dio.**

5.- GALDERA-ERREGUAK.

-EAJ/PNVko den Ana Jesus zinegotziak, adierazi du kalean jakin duela liburutegia itxita egongo dela Aste Santu inguruko hainbat egunetan eta zergatia jakina nahi zuela.

Gorka alkateak erantzun dio, 2020ko urtean Covid izurritea zela eta behar baino ordu gehiago sartzen aritu zirela.

Anak esan du, beti kultura sustatu behar dugula eginez ari garela eta irekita beharko lukeela liburutegiak egun hauetan.

Gorkak gaineratu du, 2021eko egutegia egitearekin batera udal langileei adierazi zitzaiela Aste Santu aurretik 2020urteko oporrak bukatu beharko zirela, eta hori ere, orain itxita egoteko arrazoi bat ere badela.

Anak esan du, martxoaren 23an izandako kultur batzordean ez zela ezer aipatu eta oraingoan ere, informazioa falta dutela. Txandaka irekitzeko aukera edo...ez den baloratu esan du.

Alkateak erantzun du esanez azken orduko zerbait izan dela, bai pentsatuta zutela txandaka egitea edo, baina azkenean 2020ko opor egunak bukatu behar horrekin egoera hau dela.

Halaber, Kultura sailarekin hitz egin zuenean, aurreko urteetako datuak begiratu zituztela eta ez dela pertsona kopuru haundia ibiltzen adierazi dio Anari.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:45tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.